


# 2004ko JARDUERAK



## **0. Egoera orokorra**

2004. urtea UDALBIDE Elkarlan Elkartearen egonkortze urtea izan da. Zuzendaritza Batzordea lehen aldiz aldatu eta gero, orain arte jorratu diren ildoak indartu egin dira eta barne antolakuntza hobetu.

## **1. Ekimenak**

Udalbidek garatu dituen ekimen guztiak, Udalek dituzten konpetentzi arloetan burutu dira.

UDALBIDE Elkarlan Elkartearen ekimenak burutzeko zenbait programa propio jarri ditu martxan. Batez ere, Euskal Kultura – Euskara barne-, kirola eta beste arlo batzuetan. Ekimenak, funtsean, Nafarroan eta Iparraldean burutu dira, izan ere, Euskal Kulturak lurralde hauetan du egoera ahulena.

## **Iparraldean** garatu diren ekimenak:

- ▀ **HEZKUNTZAN (56.000 euro)**: Ekimen nagusiaK Iparraldeko eskola eta ikastoletan burutu dira, Euskal Kultura babestu eta garatzeko. Ekimena gauzatzeko **SEASKA** erakundearen laguntza izan du Udalbidek. Halaber, haurren eskolatik kanpo duten aisialdiak euskaraz izatea bultzatzeko **UDA-LEKU** elkarteak izan du laguntzaile moduan. Elkarte hau euskal kultura bultzatuz, eskola haurrentzat aisialdiak euskaraz antolatzen dituen elkarteak da, Iparraldean, baina Hegoaldekoekin trukaketa eta elkarrekiko egonaldiak eginaz. Baita ere, **IKASBI Elkarteari**, autobus garraiorako eman zitzaion laguntza.
- ▀ **KOMUNIKABIDEAK (12.000 euro)**: Gaur egungo gizartean, komunikabidek oinarrizko papera jokatzen dute kultura eta hizkuntzek garatzeko orduan. Ekimen hau burutzeko, **HERRIA Astekaria** eta **MENDIZOLAN** elkarteek izan dira laguntza jasotzenak. Lehena, Iparraldean euskarazko aldizkari zaharrenetarikoa argitaratzen du. Bigarren elkarteak, haurrentzat zuzendutako PIKA aldizkaria argitaratzen du.
- ▀ **KULTURA (17.402,5 euro)**: Arlo desberdinetan kultura ekimenak burutu dira UDALBIDE KULTURA Programaren barruan. Lagundutako elkarteak: **Zirrimarra elkarteak, Altxa Mutilak elkarteak** eta **Pika Elkarteak**. UDALBIDE KULTURA Programa Euskal Kultura –Euskara barne- garatzea du helburu nagusi bezala.

**Nafarroari** dagokionez, esfortzu berezia egin da. Burututako ekimenak hauek izan dira:

- **HEZKUNTZAN (216.864 euro)**: Erraz ulertu daiteke edozein kultura edo hizkuntza bat garatzeko bide egonkor eta nagusia eskolak eta ikastolak direla. UDALBIDE HEZKUNTZA Programa honetako ekimena burutzeko zenbait ikastola izan ditu laguntzaile moduan: **Lizarrako Ikastola, San Adriango Ikastola, Berako Labiaga Ikastola, Tuterako Argia Ikastola, Vianako Erentzun Ikastola, Zangotzako Ikastola,** eta **Lodosako Ibaialde Ikastola. SORTZEN Ikasbatuaz** elkarteak ere lagungarri izan du beste ekimen batentzako.
- **KOMUNIKABIDEAK (13.000 euro)**: Iparraldearen antzera, Nafarroan ere komunikabideetatik Euskal Kultura eta Euskara hedatzea garrantzi handikoa da. Ekimen hau gauzatzeko **Euskalerria Irratia**ren eskutik burutu da.
- **KULTURA (89.900 euro)**: Arlo desberdinetan kultura ekimenak burutu dira UDALBIDE KULTURA Programaren barruan. Elkarte hauek izan dira, sinaturako hitzarmenen kariatara laguntza jaso dutenak: **Nafarroako Dantzariak, Karrikiri Elkarteak, Euskara Kultur Elkargoa (EKE), Beterri Elkarteak, Lizarra Gurea ikuskizuna** eta **Irujo-Etxea elkarteak**.

## **Euskal Herri Osorako** burutu diren ekimenak:

### UDALBIDE **HEZKUNTZA** Programaren eskutik:

- ▀ Trebiñon ekimen garrantzitsu bat eraman da aurrera euskal kultura eta euskararen alde. **Argantzungo Ikastolak** jaso du laguntza. (**120.000 euro**)

### UDALBIDE **KULTURA** Programaren eskutik:

- ▀ Historia (**76.476 euro**): **Foro Irun XXI** eta **Euskokultur** fundazioen laguntzarekin Antxo III. Handiaren figura oroitu nahi izan da bere koroatzearen milurteurrenean. Besteak beste, pastoral bat sortu da eta zenbait kontzertu antolatu dira. Halaber, *Euskal Herria aldizkarian* Antxo III. Handiari buruzko komiki bat argitaratu da.
- ▀ Kultura ekimenak (**150.607,62 euro**): Arlo desberdinetan kultura ekimenak burutu dira UDALBIDE KULTURA Programaren barruan. Hala nola: **Amurrioko Udala** (Pastorala), **Euskal Herriko Txistularien Elkartea**, **Hondarribiako Udala** (Antxo III. Handiaren ospakizunak), "*Habla en Cristiano*" erakusketa, **Batzarramendi Elkartearen** eskutik.
- ▀ Euskarari buruzko liburua (**10.000 euro**): **Aranzadi Zientzia Elkartearen** laguntzarekin, euskarak Pirinio osoan izan zuen presentzien inguruan.

### UDALBIDE **KOMUNIKABIDEAK** Programaren eskutik:

- ▀ Komunikabideak (**10.440 euro**): Komunikabideetatik Euskal Kultura eta Euskara hedatzea garrantzi handikoa da. Hortaz, **Euskal Herria Aldizkaria**ri lagundu zitzaion.

UDALBIDE **KIROLAK** Programaren eskutik:

- ▀ Pilota (**19.200 euro**): **Euskal Herriko Euskal Pilota Federazioa**rekin batera, Euskal Herriko Kluben Pilota Txapelketa antolatu da. Bigarren edizioa izanik, arrakasta nabarmena izan du.
- ▀ Soka-Tira (**24.750 euro**): Eskozian izan zen Munduko Soka-Tira Txapelketan Euskal Herritik parte hartu zuten klubei babestu zitzaien, **Euskal Herriko Sokatira Federazioari** laguntza emanez.
- ▀ Euskal Selekzioak (**13.500 euro**): Udalbideri, betidanik Euskal Selekzioen aldarrikapena garrantzizkoa zaio. Hau burutzeko, **ESAIT, Zazpiak Bat** eta **Euskal Kirol Federazioen Batasuna** elkarteek jaso dute laguntza.
- ▀ Herri Kirolak (**5.400 euro**): **Euskal Herriko Herri Kirol Federakundeak**, Herri Kirolaren modalitate guztiak indartu, bultzatu eta promozionatzeko.

Azkenik, azpimarratzekoak dira UDALBIDEk garatu dituen beste bi ekimen propio: HURBILTZEN eta XENDRAK.

**HURBILTZEN (13.351,1 euro)** egitasmo honen helburu nagusia zera da: Euskal Herriko udalen arteko senidetze akordioak bultzatu, euskal hiritarren arteko harremanak indartu ahal izateko.

Udalen arteko senidetze akordioak duela zenbait hamarkadatik hona garatu den praktika ezagun bat dugu. Udal askok, dagoeneko esperientzia luze eta aberasgarria dute arlo honetan.

Senidetze akordioak garapen berezi oso garrantzitsua izan zuten joan den mendeko 90eko hamarkadan. Senidetze akordio hauei Europar Batasunak eman zien funtsezko bultzada, izan ere, gure Kontinentean esparru bateratu bat sortu eta eraikitze elementu eta tresna oso garrantzizkoak zirela argi ikusi baitzuen; Europa bateratu bat lortzeko, azken finean, baina aldi berean bere aniztasuna errespetatuz. Hiritarrek era askean ibili, merkataritzan aritu, bidaiatu, eta abar egin ahal izango duten esparru bat. Baina, eta bereziki, elkarren arteko

harremanak sortu, elkar ezagutu eta oinarrizko balio batzuk garatu eta konpartitzeko moduko esparru bat, europar nortasun komuna xede izanik.

Euskal Herria aberatsa eta anitza da. Herrialde bakoitzak baditu bere ezaugarri propioak, baina ba dira mende luzetan zehar sorturiko ezaugarriak, guztiak batzen dituztenak. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Garaia eta Beherea eta Zuberoako euskaldunak herri bat gara eta kultura batu bat osatzeko eskubidea daukagu.

Komunitate historiko bat garela frogatzeko elementu asko daude begi-bistan. Ez soilik geografikoki hurbil gaudelako; ez soilki Europako integrazio prozesuak eta berarekin etorri den mugen desagertzeak hurbiltzen gaituelako eta gure harreman ekonomiko, komertzial eta kulturalak naturalki areagotzen direlako; batez ere, demokrazia, bakea, askatasuna eta giza eskubideen errespetua balore bezala konpartitzen ditugulako eta noski, Herri modura egituratzen gaituzten funtsezko ezaugarri batzuk ditugulako, gure hizkuntza, euskara, esate baterako.

UDALBIDEren helburu nagusietariko bat Euskal Herri udalen eta bere herrialdeen artean harremanak areagotzea da. Euskal Herriko hiritarren zerbitzurako gaude; pertsona bezala Euskal Herriko hiritarren garapen integralaren zerbitzurako. Hiritarren Euskal Herri bat nahi dugu, eta horretan lan egiten dugu.

HURBILTZEN egitasmoa hori lortzeko tresna bat da. Euskal Herriko udalerrien arteko senidetze akordioak bultzatzen dituen egitasmoa. Euskal udalerrri eta hiritarrak harremanetan jartzea du helburu, elkar ezagutu eta maitatzeko, elkarrekin lan egiteko eta elkarren arteko balioak eta asmoak partekatzeko.

Beste era batera esanda, euskaldunak garelako geure arteko harremanak sendotu nahi ditugu, elkar ezagutza sakonduz eta balioak partekatuz. Izpiritu irekia eta parte-hartzailea bultzatuz. Europako integrazio prozesuarekin bat datorren ekimena dugu, mugak alde batera utziz eta elkartasun loturak eta elkarren arteko ezagutzan eta lanean oinarritzen baita.

Duela zenbait hilabetez geroztik lankidetzatza proiektu esperimental batzuk abian ipini dira. Proiektu horietan Euskal Herriko hogeiren bat udalerririk parte hartzen dute. [Antzuola](#), [Artea](#), [Asteasu](#), [Ataun](#), [Azkaine](#), [Azpeitia](#), [Bakio](#), [Beasain](#), [Deba](#), [Getxo](#), [Heleta](#), [Indaux-Mendi](#), [Kanbo](#), [Lazkao](#), [Lekunberri](#), [Lesaka](#), [Mendexa](#), [Muskiz](#), [Oion](#), [Ordizia](#), [Sara](#), [Bertizarana](#), [Ituren](#), [Lapuebla de Labarca](#), [Milafranga](#), [Mungia](#), [Sunbilla](#), [Urdazubi](#) eta [Urruña](#).

Hirunakako senidetzeak bultzatzen saiatzen ari gara: Iparraldeko bat, Nafarroako bat, eta Euskal Autonomi Erkidegoko beste bat. Akordioak udalek bultzatzen dituzte. Halaber, horiek izanen dira bitartekari lana eginen dutenak. Nolanahi ere, hiritarrak dira protagonista nagusiak, euren elkarte eta kultur edo kirol taldeen bitartez.

Gehien errepikatzen diren elkar-lan gaiak hauek dira: euskara, hezkuntza, gazteria, hirugarren adina, udal kudeaketa, kirola, turismoa, aisia, gastronomia, artisautza, musika, dantza, margolanak eta eskulangintza. Gai anitz daude eta bata edo bestea hautatu, parte hartzen duten udalerrien interes eta borondatearen baitan egonen da.

HURBILTZEN egitasmoaren bitartez finantziario laguntzaz gain, aholkularitza profesionala eskaintzen diegu udal guztiei, senidetze programa hau garatzeko, bai metodologiari, bai informazioari, bai esperientzia desberdinen bateratze lanari dagokionez. Halaber, bertze diru iturriak lortzeko ere, laguntza eskaintzen da.

Elkartasun eta batasun harremanak garatu nahi ditugu. Errespetuz eta askatasunez. Baina argi ikusita gure ekarpen hau munduan, Europan eta Euskal Herrian bakea, askatasuna eta elkarbizitza sustatzeko tresna dela.

Helburu berbera horretan kokatzen den beste tresna **XENDRAK** egitasmoa da:

Euskaldunok bidaiari ospea izan dugu beti. Bidaiari ekin diogu, gehienetan, beharrak bultzatuta, gure senideentzat soro hobeago eta emankorragoen bila; Bestetan, berriz, horren zabaldua dagoen jakin-minaren eta abentura erraldoietan parte hartzearen gosea asetzeko. Oraingoan, zerbait erabat ezberdina proposatzen dugu: Euskal herrian zehar bidai bat, Euskaldunok gure artean elkar hurbiltzeko, gure sustraiak eta gure jendeak hobeki ezagutzeko.

"*XENDRAK, EUSKAL HERRIEN BIDEAK*" denboran iraun nahi duen kultur egitasmo bat da. Honen bidez, sortu nahi dugu bide sare bat.

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi, Baxenafarra eta Zuberoa zeharkatuko dituena. Proiektu honen sorrerak, Udalbiltza<sup>®</sup>ren Hurbiltzen programak bultzatuta, proiektu berari izaera berezia ematen dio: behetik gora sortzen da, udaletatik eta horietako askoren laguntzarekin, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeetatik.

Euskal Herriaren aniztasun geografikoak (bai kontinentean, bai penintsulan kokatuta, itsasoa eta mendia, Atlantikoa eta Mediterranea), aniztasun kulturean eragina izan du. Gaur egun, Euskal Herria deitzen dugun espazioan izan diren giza saldoek, herri hau markatu dute eta mota askotako paisaiak sortu dituzte. Iparraldeko berde atlantikoaren ondoren, isurialde mediterranea dator; Bizkaiko golkoaren kresalaren ondoren, urte erdia elurretan dauden mendialdeko zonalde karstikoak.

Xendrak egitasmoak Euskal Herria zeharkatzen du gurutzatzen diren zazpi ibilbideen bidez. Ibilbide hauek herri honen izaeraren baitan dauden historia eta edukietan oinarrituta daude: itsasoa, ura, burdina, kontrabandoa, artzaintza, lege zaharrak. Ibilbide bakoitzak bere garapena izango du eta bide bakoitzaren zedarrietan argibide ezberdinak emango dira: Natura, Ondare monumentala, Pertsonaiak, Literatura, Musika, Gatazkak, Ipuinak, Folklorea, Artisautza, Herri kirolak, Zientzia.

Horrela, gure herriak eta hiriak hobeki ezagutzeko baliagarriak diren aretoak bisitatzeko parada izango da: etnografia museoak, interpretazio zentroak, kultur aretoak, arte aretoak, erakusketak...

## 2004. URTEAN EMANDAKO LAGUNTZAK: 771.814 euro

IPARRALDE	79.402 €
<b>Hezkuntza</b>	
✓ <b>IKASBI</b>	35.000
✓ <b>UDALEKU</b>	21.000
<b>Komunikabideak</b>	
✓ <b>HERRIA Astekaria</b>	6.000
<b>Kultura</b>	
✓ <b>ALTXA MUTILAK</b>	2.000
✓ <b>MENDIZOLAN Elkartea</b>	6.000
✓ <b>PIKA Elkarte</b>	8.500
✓ <b>ZIRRIMARRA Elkartea</b>	902,5

<b>HURBILTZEN</b>	<b>13.351,1 €</b>
-------------------	-------------------

EUSKAL HERRI Osoa	479.298 €
<b>Hezkuntza</b>	
✓ <b>ARGANTZUN Ikastola</b>	120.000
<b>Komunikabideak</b>	
✓ <b>EUSKAL HERRIA Aldizkaria</b>	10.440
<b>Kirola</b>	
✓ <b>Euskadiko Euskal Pilota Federakuntza</b>	19.200
✓ <b>Zazpiak Bat</b>	10.000
✓ <b>Euskadiko Sokatira Federakuntza</b>	24.750
✓ <b>Euskadiko Herri Kirol Federakundea</b>	5.400
✓ <b>EKFB</b>	3.000
✓ <b>ESAIT</b>	10.500
<b>Kultura</b>	
✓ <b>BATZARRAMENDI Elkartea</b>	10.457,6
✓ <b>ANTSO III K.P.</b>	53.914
✓ <b>AMURRIOKO Udala</b>	1.200
✓ <b>ARANZADI Z. E.</b>	10.000
✓ <b>EH TXISTULARI Elkartea</b>	9.000
✓ <b>EUSKOKULTUR F.</b>	51.036
✓ <b>HONDARRIBIKO Udala</b>	15.000

<b>NAFARROA</b>	<b>319.764 €</b>
<b>Hezkuntza</b>	
✓ <b>SORTZEN</b>	12.000
✓ <b>SORTZEN Ikasbatuaz</b>	15.000
✓ <b>San Adriango Ikastetxea</b>	40.000
✓ <b>Lizarrako Ikastola</b>	17.864
✓ <b>Vianako Ikastola</b>	33.000
✓ <b>Lodosako Ikastola</b>	33.000
✓ <b>Tuterako Ikastola</b>	33.000
✓ <b>Zangotzako Ikastola</b>	33.000
<b>Komunikabideak</b>	
✓ <b>EUSKALERRIA Irratia</b>	13.000
<b>Kultura</b>	
✓ <b>Euskara Kultur Elkargoa (EKE)</b>	62.000
✓ <b>IRUJO ETXEA Elkarte</b>	18.600
✓ <b>LIZARRAko Euskararen Eguna</b>	1.500
✓ <b>KARRIKIRI Elkarte</b>	4.500
✓ <b>Nafarroako Dantzarien Elkarte</b>	1.500